

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2011ko urriaren 28a. VIII. urtea. 2.298. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Koru musika onenak hartuko du Tolosa, bihartik aurrera

Asteartera bitarte 19 abesbatzek hartuko dute parte 43. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan; amaierako saioa azaroaren 1ean izango da

Euskal talde bakarrak hartuko du parte, Errenteriako Landarbaso; Aritz Gonzalez lehendakariak «erronka handia» dela dio **04-5**

### Alegiako Udazkenean Kultura abendura arte luzatuko da

Ekitaldiak azaroaren 2an hasiko dira Aitor Jimenezek emango duen makrobiotika ikastaroarekin **02**

### Euskal Herrian eginiko garagardoak dastatu ahalko dira Anoetan


Urrifest gaua antolatu du biharko Gaztetxeak; 19:00ak aldera hasiko dute jai eta ondoren, alemaniar erako afaria dastatu ahal izango da **07**

### Joseba Otaegi Aizkolaria

«Aizkoran ahal den lanik onena egitera joango naiz desafiara»

Elkarrizketa **06**

### ↓ Etzi, ordu aldaketa



Migel eta Juantxo Zeberio, eta David Azurza izan ziren, atzo, Aranburu jauregian egindako aurkezpenean. I. GARCIA

## Pohjolaren omenaldia, kalean

Finlandiako Erkki Pohjolaren omenez iaz Tolosako Leidor aretoan egindako kontzertuaren CDa eta DVDa argitaratu dituzte; Migel eta Juantxo Zeberioek egin dute lanaren ekoizpena **03**

### PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • [tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)



# Udazkena kultur ekitaldiz beteta iritsiko da

Azaroaren 2tik aurrera, kultur ekitaldiak izango dira nagusi; ikastaroak, erakusketak, hitzaldiak, antzerkiak, musika,...

Enertiz Maiz Alegia

Alegiako Udalak, Udazkenean Kultura ekitaldiz betea prestatu du. Azaroaren 2an makrobiotika ikastaroarekin hasi, eta abendu amaieran erakusketarekin amaituko da.

Haur antzerkia, ipuin kontalaria, helduentzako antzerkia eta musikariek ere ez da faltako. Hitza eta musika uztartuz, musikaz lagundutako errezitaldia prestatu dute. Txintxarri eguna, Xexili eguna eta Dantzari Txikien eguna ere ospatuko dituzte. Mendi irteeran parte hartzeko aukera izango da. Tripa betetzeko, udalak hamaiketako era eskainiko die. Bi erakusketa izango dira, eta gai ezberdinen inguruko hitzaldiak entzuteko aukera ere izango da. Orain, herritarrek parte hartzea baino ez da falta.



Dantzari Txiki egunean, haur asko elkartuko dira. HITZA

## ↓ Alegiako Udazkenean Kultura

### AZAROAK 2, 9, 16, 23, 30

■ **Makrobiotika ikastaroa.** 19:00etatik 22:00etara, Txintxarri elkarteak. Aitor Jimenezekin.

### AZAROAK 4, OSTIRALA

■ **Haur antzerkia.** 17:30ean, *Mementu Ridiccoli* antzezlanak. En la lona taldearen eskutik izango da, kultur etxean.

### AZAROAK 6, IGANDEA

■ **Txintxarri Eguna.** Txintxarri abesbatzak bere eguna ospatuko du. Abesteaz gain, bazkaria ere egingo dute.

### AZAROAK 8, ASTEARTEA

■ **Ipuin kontaketa.** 17:00etan *Kontukantoi* ipuina kontatuko dute, liburutegian.

### AZAROAK 10, OSTEGUNA

■ **Elikadura makrobiotikoa.** 19:00etan, Makrobiotikan aditua den Jexux Larretxeak hitzaldia eskainiko du, kultur etxean.

### AZAROAK 15, ASTEARTEA

■ **Euskal Jantziak.** 18:30ean, Euskal jantziei buruzko hitzaldia eta tailerra izango dira Lurdes Esnaolaren eskutik, kultur etxean.

### AZAROAK 19, LARUNBATA

■ **Xexili eguna.** Loatzo musika eskolaren eskutik.

### AZAROAK 22 ETA 23

■ **Erakusketa.** 19:00etatik 20:30era, Jose Ignacio Iglesiasen *Alegia: XIX. - XX. Mendek* erakusketa egongo da, kultur etxean.

### AZAROAK 25, OSTIRALA

■ **Birakabareta antzerkia.** 22:00etan, helduentzako antzerkia izango da, Intujai Teatroren eskutik, kultur etxean.

### AZAROAK 27, IGANDEA

■ **Mendi irteera.** 08:30ean, mendi irteera eta bazkaria egingo dituzte, Bedaio Mendi Asanbladak antolatuta.

### AZAROAK 30, ASTEAZKENA

■ **Gaitz arruntak.** 19:30ean, *Gaitz arruntak* hitzaldia eskainiko du, Julian Bereziartua medikuak, kultur etxean.

### ABENDUAK 1, OSTEGUNA

■ **Gipuzkoaren sorrera.** 19:30ean, Gipuzkoaren sorreraren inguruko hitzaldia, Nabarralde Taldearen eskutik izango da, kultur etxean.

### ABENDUAK 2, OSTIRALA

■ **Ipuin kontaketa.** 17:00etatik aurrera, Maite Franco izango da liburutegian, haurrei ipuinak kontatzen.

■ **'Euritan'.** 22:00etan, *Euritan*, musikaz lagundutako errezitaldia izango da. Eneko Aranburu eta Txoan Ormazabalek errezitatuko hitzak, Desordutan taldeak musikatu diko dituzte.

### ABENDUAK 3, LARUNBATA

■ **Hamaiketako.** 11:00etan, herritarrentzat hamaiketako izango da herriko plazan.

### ABENDUAK 4, IGANDEA

■ **Dantzari Txiki eguna.** Sutarriz dantza taldearen eskutik, dantzari txiki eguna izango urtero bezala.

### ABENDUAK 11, IGANDEA

■ **Organo kontzertua.** 12:00etan organo kontzertua izango da elizan, Loreto Aramendiren eskutik.

### ERAKUSKETA

■ **Abenduaren 12tik, 20era.** SOS Racismoko erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean. *Emakumea, etorkina, bizilaguna* izena du Mundu bat Tolosaldean erakusketa.

# Tolosako Udalak 2012rako tasak aurrera ateratu ditu

Azken osoko bilkuran mailegu aldatzea erabaki dute; PSE-EE abstenitu egin zen eta EAJ kontra agertu zen

Rebeka Calvo Tolosa

Herenegun iluntzean osoko bilkura egin zuten Tolosan. Bertan mozio ugari izan zituzten hizpide,

eta gehienak onartuak izan ziren. Ohiko puntuko ere izan zituzten hizketagaiak: azaroaren 20ko hauteskundeetako mahaikideak izendatzeko zozketa egin zuten, eta irailaren 22tik urriaren 20ra bitarteko alkatetza dekretuak ere onartu zituzten.

### Normalizazio politikoa

Horiek horrela, normalizazio politikoa aldeko adierazpen instituzionala aurkeztu zuten Bilduk.

Alderdiak ez ziren adostasun batera iritsi eta adierazpena ez zen onartu. Alderdi bakoitzak bera ekarpena egin zuen.

2012ko ordenantza fiskalen onartzearen inguruan ere hitz egin zuten, eta besteren artean, zabor bilketari dagokion zerga %5 igoko dutela adierazi zuten, ez ordea, beste zergak, hauek %2,85 igoko baitira. PSE-EE abstenitu egin zen eta EAJk kontrako bozka eman zuen. Jeltzaleak ez dau-

de igoeraren aurka, baizik eta, udal gobernuak defendatzen duen zabor biltzea ereduarekin daude desadostasunak. Udalaren mailegu aldatzea hasierako onarpenari dagokionez, onartu egin zen. Honela aurrekontuetan jaso gabeko hainbat gasturi aurre egingo zaie. EAJ kontra azaldu zen, eta PSE-EE abstenitu egin zen.

PSE-EEK Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala babestuz mozioa ateratu


zuen, baina Bildu eta Aralarren bozkek zirela medio, atzera bota zuten.

Beste moziorik ere bazen, Udal Egoitzari dagokion defizitari buruzkoa, hain zuzen. Azkenean ez zen sozialisten mozioa onartu, udal gobernuak egindako emendakina baizik. Udalak Foru Alduniarri 6 hilabeteko epean legez dagokion eskumenak jasotzen dituen plana aurkezteko eskatuko dio, izan ere, zahar egoitzaren defizita orain udalak ordaintzen du, baina legez Foru Aldundiari dagokio.

### TOPA

TOPAK, Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak, aurkeztutako mozioa onartu egin zen Bilduren eta Aralarren bozkei esker. EAJ abstenitu egin zen.

Erregu eta galderen txanda iritsi baino lehen, tentsio handiko lineari buruzko mozioa ere eztaba datu zuten, Castejoneko zentraletik argi indarra ekartzeko izango da linea. Honen kontra azaldu ziren Bildu, Aralar eta EAJ.



## Tolosako Udala

IRAGARKIA

2011ko urriaren 26an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2012. urteko urtarrilaren 1etik aurrera Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedienteak aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo dituzaten erreklamazioak aurkeztu.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosa, 2011ko urriak 27an  
ALKATEA



sariduna



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat sarrera pareta du

### X. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia

• Maitane Jauregi (Albiztur)

Ostirala, urriak 28  
22:00etan Andoaingo Basteron

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzu



# Erkki Pohjolaren omenez egindako saioaren grabaketa argitaratu dute

«Maitasun eta ilusioz» egindako kontzertuaren CDa eta DVDa aurkeztu dituzte proiektuaren bultzatzaileek

**Imanol Garcia** Tolosa

Orain urtebete egindako omenaldiak jarraipena izan du. Erkki Pohjola finlandiarren omenez kontzertua egin zuten 2010eko urrian Tolosako Leidor aretoan. Emanaldi hartako CDa eta DVDa argitaratu dute, *Erkki Pohjola, in memoriam concert* izeneko, eta atzo aurkeztu zuten lana bi bultzatzaile nagusiek, Migel eta Juantxo Zeberioek. Bere ondoan izan zen David Azurza, iaizo kontzertuko parte hartzaileetako bat.

Migel Zeberioek Pohjolak utzitako «arrasto garrantzitsua» nabarmendu zuen: «Urte askotan etorri zen Finlandiatik Tolosako Abesbatza Lehiaketara. Berarekin hartu eman handia izan genuen, bai pertsonala eta bai musikaren aldetik. Ez genuen utzi nahi gure omenalditxo eta gure alde positiboa adierazi gabe. Iazko kontzertua berak eman digunaren neurrikoa izan zen. Emaizta ere bikaina izan zen, grabaketa ere ederra tera zen, eta CDa eta DVDa argitaratzea erabaki genuen». Pohjolaren ekarpena laburbildu zuen Zeberioek: «Haurren koruen gaian XX. mendeko bigarren zatia erreferentea izan da mundu mailan.



Juantxo eta Migel Zeberio, eta David Azurza, atzo egindako aurkezpenean. I. GARCIA

Iraultza bat egin zuen pertsona izan zen eta zortea izan dugu gertuko ia dugulako».

Musikari bezala jasotako emaria eta Pohjolarekin izandako harremana kontzertua gauzatu zutela esan zuen Zeberioek. «Gauzak sortzeko eta birsortzeko dira. Iraganak horretarako balio behar duela uste dut. Emaizta oso ederra da eta hor geldituko da, horren gainean beste batzuk ere eraikitzen jarrai dezaten», gaineratu du.

Bere aldetik, Juantxo Zeberioek «ilusio eta maitasun handiz» egindakoa lana izan dela nabarmendu zuen, «jende askoren borondatearekin». Eszenatoki gainean 250 haur izan ziren, 30 musikari, eta kontzertu horretarako sortutako

eszenografia. «Zeharka etorri ziren lauzpabost eroren laguntza ere jaso genuen», esan zuen. «Zorionez, horrelako kasuetan gertatzen den bezala, gu oso kontentu gelditu ginen emaitzarekin. Azkeneko unean grabatzea pentsatu zen eta dena espero baino hobeto geratu zen, bai kontzertuarena, bai soinua eta baita grabaketa bera ere».

David Azurzak bi gauza azpimarratu zituen. Batetik, Pohjolarekin izandako harreman estua gogora ekarri zuen. «Musikalki eta pertsonalki proiektu honetan parte hartu nahi nuen», esan zuen. Bestalde, argitalpena goraiatu zuen: «Horrelako eroak eta erokeriak behar ditugu gure kultur bizirik mantentzeko. Proiektu



hauek eta ilusio horrekin egindakoak behar dira, eta zoriontzekoa da egindakoa».

Lana salgai izango da, alde batetik, Tolosako Abesbatza Lehiaketaren dendan. Bestetik, Abesbatza Federazioaren bitartez ere eskuratu ahalikoa da, eta Tolosako zenbait komertzioetan ere erosi ahal izango da.

## Oskar Zelarainen eta Andoni Otegiaren ahozko epaiketa hasi da

**Erredakzioa**

Atzo goizean Leiburuko Andoni Otegi eta Villabonako Oskar Zelarainen euskal presoen ahozko epaiketako lehen eguna izan zen, eta gaur izango du jarraipena. Fuen-girolan (Espainia, Malaga, Andaluzia) izandako ekintza batengatik ari dira epaitzen, eta fiskaltzak 146 urtetako espetxe zigorra eta 100.000 euroko kalte ordainak eskatzen du bi presoentzako. Ahozko epaiketako lehen egun honetan poliziek eta hainbat lekukok deklaratu zuten.

Era berean, gaur iluntzean ohiko elkarretaratzeak izango dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan. Eta asteartean, azaroak 1, Tolosako Abesbatzen Lehiaketa dela eta, urtero legez elkarretaratzea egingo dute euskal presoen eskubideen alde 10:00etan Leidor parean.

### ↓ Azken ostiralak

■ **Aduna**, 20:00etan. ■ **Alegia**, 19:30ean. ■ **Ameketa**, 19:30ean. ■ **Anoeta**, 19:30ean. ■ **Asteasu**, 20:00etan. ■ **Ibarrera**, 19:30ean. ■ **Gaztelu**, 20:30ean, plazan. ■ **Ikaztegieta**, 20:30ean. ■ **Lizartza**, 20:00etan. ■ **Orendain**, 20:00etan. ■ **Tolosa**, 19:30ean. ■ **Zizurkil**, 20:00etan. ■ **Leaburu-Txarama**, 20:15ean Leaburun. ■ **Leitza**, 20:00etan.



## harpidedun izateak badu saria irabazleak

### 1 Casa Julian

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

• **Gorka Otxoa-Aizpurua (Anoeta)**

Eskaera egiteko, bi hilabete:  
Santa Klara, 6 • Tolosa  
Tel.: 943-67 14 17



### 2 Arregi Jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

• **Marta Agirrezabala (Altzo)**

Eskaera egiteko, bi hilabete:  
Herriko plaza, 7 • Berastegi  
Tel.: 943-68 30 59



### 3 Frida Ileapaindegia

Bi ile mozketa

• **Amalia Ramiro (Ikaztegieta)**  
• **Rosario Amundarain (Ikaztegieta)**

Eskaera egiteko, bi hilabete:  
Letxuga kalea, 2 • Tolosa  
Tel.: 943-57 68 91



fridaileapaindegia

### 4 Larte Idiazabal jatorriko gazta

Bi gazta

• **Maria Ondarretxe (Berrobi)**  
• **Tximak ileapaindegia (Iruña)**

Ameriondo Etxea  
www.euskalherrikoplaza.com/larte-gaztaindegia  
Sardunek etxean jasoko dute gazta.



harpidedunen **TXOKA hitza** info



# IRITSI DA ABESBATZA MUSIKAZ

## Itza Urkizu

Tolosako 43. Abesbatza Lehiaketa dela eta 11 herrialde eta 19 abesbatza protagonista izango dira aste-horri honetan.

Bihar 19:00etan hasita, datorren asteartera bitarte abesbatza

tzaren doinu antizak entzun ahal izango dira, bai Leidor aretoan, baita Santa Klara elizan ere.

Alemania, Txekia, Errepublikak, Txina, Espainia, Ameriketako Estatu Batuek, Filipinak, Finlandia, Letonia, Erresuma Batua, Errusia eta Ukrainatik etorriko

dira 19 abesbatza, lehiaketa partehartzen.


Ahots nahastetako 8 abesbatza lehiatuko dira folklore eta polifonia sallean. Erlijio musikarekin eta musikari profesioaren sallean, herri, 60ahots talde arko dira. Azkenik, haur abesbatzi dagokie



**BALISIS**  
• **Letonia.** 1987an sortu zen, eta Letoniako abesbatzarik onenetariko da. Ints Teterovskis da zuzendaria. Errepertorio zabala abestu dute mundu osoan zehar. Polifonia sallean abestuko dute urriaren 30ean, 16:00etan, eta 20:00etan, folklore sallean.



**NOVY VEK**  
• **Errusia.** 2008an sortu zen San Petersburgon. Mikhail Bashnev da zuzendaria. Bihar abestuko dute 19:00etan Leidorren, musika profesioaren sallean. Urriaren 31n, beriz, Santa Klara elizan arko dira, 11:00etan, erlijio musikarekin sallean.



**CON ANIMA**  
• **Letonia.** Iga Skandere da haur abesbatza honen zuzendaria, 1981az geroztik. Cesis hiriko lehenengo onarritako eskolako emakume abesbatza da. Urriaren 30ean abestuko dute, haur abesbatzen sallean, Leidor antzokian, 11:00etan.



**THE CONVIVUM SINGERS**  
• **Erresuma Batua.** Alex Norman da zuzendaria, 2009an sortu zen ahots talde honetan. Bihar musika profesioaren sallean abestuko dute Leidorren, 19:00etan, eta astelehenean, erlijio musikarekin sallean arko dira Santa Klara, 11:00etan.



**THE GENTLEMEN SINGERS**  
• **Txekia.** Richard Uhlir da zuzendaria, 2008an bigarren bi sari eskuratu zituzten Tolosan. Bihar musika profesioaren sallean abestuko dute Leidorren, 19:00etan, Astelehenean, Santa Klara elizan arko dira erlijio musikarekin sallean, 11:00etan.



**GUANGZHOU**  
• **Txina.** 1954an sortu zen, eta gaur egun mundu osoko haur abesbatzarik ezagunenetarikoa da. Abesbatza musikoko lan zailenak interpretatzeko gai da Chen Ling zuzendari duen taldea. Urriaren 30ean, haur abesbatzen sallean arko dira, 11:00etan Leidor aretoan.



**23. Europako Sari Nagusia**  
Aurtur Tolosan ospatuko da, gaur. Abesbatza Kantuarren 23. Lehiaketa amariako saioa azaroaren leian izango da, 11:00etan hasita, eta sail gurutzeko lehen hiru sailkatuek sariarik banatuko dizkiete.



**SAN PETERSBURGOKO HAUR ABESBATZA**  
• **Errusia.** 1955ean sortu zen, eta gaur egun, 250 haur eta gaztek osatzen dute abesbatza. Nazioarteko lehiaketa 10 lehenengo sari jaso dituzte. Igandean arko dira Leidorren, haur abesbatzen sallean, 11:00etan.



**THE WOLFRATSHAUSER CHILDREN CHOIR**  
• **Alemania.** Yoshihisa Matthias Kinoshita zuzendariak sortu zuen 1989an, 180 abeslari inguru ditu, udal eskolako abesbatza honak. Urriaren 30ean arko dira, haur abesbatzen sallean, 11:00etan, Leidor aretoan.



**2002an.** Nazioarteko mailan ere aritzen da ahots nahastetako abesbatza da, eta 20:00etan, folklore sallean.



**2009an sortu zen taldea.** Bihar, musika profesioaren arko dira Leidorren, 19:00etan. Urriaren 31n, erlijio musikarekin arko dira Santa Klara, 11:00etan.



**2009an sortu zen taldea.** Bihar, musika profesioaren arko dira Leidorren, 19:00etan. Urriaren 31n, erlijio musikarekin arko dira Santa Klara, 11:00etan.

# GOZATZEKO UNEA

## EL LEON DE ORO

• **España.** Asturiasen sortu zen 1996an, eta oso abesbatza sartua da. Astelehenean polifoniar arko dira 16:00etan Leidorren, 20:00etan, folklorean.

## PEQUES DEL LEON DE ORO

• **España.** 2000. urtean sortu zen Luancon. Elena Rosso da zuzendaria. Haur abesbatzen sallean arko dira igandean, Leidor aretoan, 11:00etan.

## LOBOC CHILDREN'S CHOIR

• **Filipinak.** 1980an sortu zen, eta nazioartean onarpen handia du. Haur abesbatzen sallean arko dira urriaren 30ean Leidorren, 11:00etan.

## LUAR VOCAL ENSEMBLE

• **Letonia.** 2009an sortu zen taldea. Bihar, musika profesioaren arko dira Leidorren, 19:00etan. Urriaren 31n, erlijio musikarekin arko dira Santa Klara, 11:00etan.

## HEINRICH-SCHÖTZ-ENSEMBLE VORNBACH

• **Alemania.** 1993an sortu zen. Polifonia eta folklorean arko dira, igandean, 16:00etan eta 20:00etan, Leidorren.

## OREYA

• **Ukraina.** Alexander Vaisak zuzendariak sortu zuen 1986an, 1990az geroztik 7 Grand Prix eta 23 lehenengo sari jaso ditu mundu osoko lehiaketaetan. Polifonia eta folklorean arko dira, igandean Leidorren, 16:00etan eta 20:00etan.

## LANDARBASO ABESBATZA


• **Euskal Herria.** 1991ean sortu zen Errenterian. Igandean polifoniar arko dira, 16:00etan Leidorren. Urriaren 31n, ondare leku berrak, folklorean arko dira.

## SINGEMEN

• **Erresuma Batua.** Izen handiko ahots taldea da. Bihar Leidorren musika profesioaren arko dira 19:00etan. Astelehenean, Santa Klara, erlijio musikarekin, 11:00etan.

## THE CORAL PROJECT

• **ABE.** 1996an Daniel Hughes-ek sortu zuen ahots nahastetako talde hau, 20 emakume eta 20 gizonen osatzen dute taldea. Abesbatzaren helburua entzules antzerki koralean, hezikuntzan eta musikarekin



## Aritz Gonzalex • Landarbasoko lehendakaria

### «Koru oso onak dotoz; erronka eta ohorea da guretzat»

## L.García

Tolosako Abesbatza Lehiaketa euskal koru bakarra izango da lehiaketa. Errenteriko Landarbaso abesbatza. Bertako lehendakaria eta abeslaria da Aritz Gonzalex (Oiarzun, 1976). Partaideak Gipuzkoako hainbat herriko abeslariak dira, baita ere Osoosoilkoak.

## Zer suposatzen du Landarbaso abesbatzarentzat Tolosako lehiaketan parte hartzea?

Aurtur korak 21. urteurrena betetzen du. 2001ean, 10 urteurrena bete genuen, hartu genuen parte lehen aldiz Tolosako Abesbatza Lehiaketa. Orduan bizi izan genuen esperantza oso polita izan zen. Kimur urte ondoan, esperantzia hori berriro bizi nahi dugula eta lehiaketa izan. Erronka handia da.

Urbete daramagu lehiaketa hau prestatzen. Aurretik ere hainbat nazioarteko lehiaketatan egon gara. Gure asmoa da lehiakorrak izatea eta onenekin egotea. Gero epailek erabakiko dute.

Horrelako lehiaketa baterako prestateta nahiko gogorra izango da. Oihen aukeraketa zuzendariaren lana da baina gero obra horiek aurrera atera behar dira. Lehenengo ikasi, gero abeslari bakoitzak ahots taldeak lantzen ditu. Hogei minututan erakutsi behar duzunaren atzean lan asko dago.

**Nola hartu zuten aukerako erabakia?**  
Zortiz arrez Euskal Herrian ez daude hainbeste abesbatza. Eta Tolosan parte hartzeak suposatzen duen erantzukizuna, denboraz hartu beharreko erabakia da. Aurretik koruan galdetu egiten dugu. Gero, ikasi genuen 2011rako aukera polita izan zitkeela. Eta aurrera egiten genuen.

**Koruko abeslari gizonen konpromisoa behar da, ez?**  
Gure koruan 45 partaide daude, eta batzabesteko aldina 30 urtekoa da. Guretzat 18-19 urte izango dituzte eta zaharretan 40tik gorako. Adin tartehorretan, asteroentzuegustara joan, gehi asteburuko kontzertuak... Horren erantzukizuna hartzea eta talde bezala horri erantzutea, meritu handia da gaur egungo giza-eremuan.

**Oraingo hamur urte izan zitekeen Tolosan. Horretaz gain, parte hartu duzue beste nazioarteko lehiaketa batzuetan. Nola izan da lehiaketa?**  
Tolosa izan zen nazioarteko mailan parte hartzen genuen lehen lehiaketa. Tolosako lehiaketa beste nazioarteko lehiaketa batera harrarmanetan dago, eta zuzari lehiaketa horietatik seitan parte hartzea lortu dugu. Bikerrean badaramatzaugu hainbat lehiaketa, eta hori taldeari naharritzen zait.

**Berez, eskarmentu horrekin, lehen sari lortzeko lehiaketa egiteko moduan zango zarete.**  
Asmo hori da. Noski, koru oso onak izango dira lehiaketa, baina, bera, lotsagabeki bada ere, gu hori egoteko asmoa dugu, eta, esan bezala, gero epaimahaiak erabakiko du.

**Eraguzten dituzte parte hartuko duten beste abesbatzak?**  
Bisturak bai. Adibidez, The Choral Project estatubatuarrekin lehiatuz gara. Kalforniarako lehiaketa batean, eta oso koru ona da. Balis ere oso ezaguna da. Hemen parte hartu du urte askotan eta herri maila oso onak erakutsi ditu. El Leon de Oro dugu. Oryea ere bai... Badakigu aurtengo edizioan bereziki koru oso onak etorriko direla, eta guretzat, ohorez gain, erronka handia da.

**Abesbatza gipuzkoarra izanik, etxean abeslari arko zuzentze lehiaketa, behintzat, aldez izango dituzue.**  
Horren esperantza daukagu. 2001. urtean orik, bel kanpoan lehiatu gara, eta kanpoan arduraz da hainbeste. Ondo aritzen bazara, kritikak onak jasozten dituzte eta erantzukizuna ematen dute. Etxean, aldi, biltze bat egina dugu, eta horri erantzuten behar dugu. Kanpoan zu zara eberdina, eta etxean aritzen zarenen, zu zara betikoa.



ITZA

**Joseba Otaegi** ◊ Aizkolaria

Xabier Zaldúa zumarragatarrak eta Joseba Otaegi zizurkildarrak apustua jokatuko dute etzi Azeptian, 12:00etan; aizkora eta korrika hobekien moldatzen denak, 5000 euroko desafioa irabaziko du.

# «Txikonen aurkako desafioaren ondoren, hauxe da begiz jota nuen apustua»

**Asier Imaz** Zizurkil

Apustuak urte luzeetan zehar aizkora bizi izan dira. Azken urteotan, ordea, gutxi batzuk eduki dute apustuak bota edo onartzeko ausardia. Horien artean, Joseba Otaegi (Zizurkil, 1983) azpimarratu behar da: etzi jokatuko duena, bere ibilbideko laugarrena izango da.

Xabier Zaldúa eta Joseba Otaegi hitzordua Azeptiko zezen plazan dute, 12:00etan. Kirolari bakoitzak hamar kana-erdiko eta lau 60 ontzako enbor moztu beharko ditu, eta jarraian, zortzi kilometro egin beharko dituzte korrika. Alde bakoitzak 5.000 euro jarriko ditu mahai gainean. Sarrerak egunean bertan eros badaitezke ere, Zizurkilgo Iriarte jatetxean salgai aurkitzen dira: helduentzat 30 eurotan; 16 urte-tik beherakoentzat doan eta 18 urte bete ez dituztenentzat 20 eurotan.

Egun handia gertu dago, eta Otaegi bere burua ongi ikusten duela dio.

**Korrikako proba zergatik sartu duzue apustuan?**

Aizkora bakarrik ez zuten jokatu nahi berak; korrika sartuz gero ordea, baietz.

**Maiatzaren leantuzenuten dena.**

Berak bigarren apustua irabazi ondoren, Euskadi Irratian, nirekin jokatzea gustatuko litzaiokela esan zuen, nik hiru apustu irabaziak bainituen. Azeptian gelditu ginen hitz egiteko, eta berak korrikako distantzia 10 kilometrotan jarri zuen. Nik 6 km esaten nituen. Azkenean, 8an utzi genuen.

**Egurretan ordea, zure aldera ekarri zenuen desafioa.**

ENERITZ MAIZ

14 kana erdikotik 10era pasatu ginen, hori bai, 60 ontzako lau enbor sartu genituen. Nik uste azkenean biok gustura gelditu ginela, hori bai, lan handiak dira eta errespetua ematen du.

**Hiru egun besterik gelditzen ez diren honetan, nola sumatzen duzu geroa?**

Sarrerak normalean azken onean erosten dira, baina giro ona nabari da: jendea gogoz dago. Komunikabideetan ere oihartzuna izan ari da, eta Azeptia aldean badakit giroa badagoela. Jende dezente mugituko dela dirudi.

**Garai bateko aizkora apustueta, kirolaria erdi bahiturik izaten zuten koadrilakoe; aurkaria gertutik jarraitzeko ahaleginak ere egiten ziren.**

Bestea nola dagoen jakiteko interese hori beti hor egoten da; gainera, normala dela uste dut. Hala eta guztiz ere, ez dago lehengo konturik. Erakustaldiren bat edo txapelketaren batean parte hartzen baldin badu, adi egoten zara, baina bi edo hiru hilabete lehenago egiten denak ez du askorako balio izaten.

**Aizkora eta korrika: entrenamenduak nola antolatu dituzu?**

Hasieran korrikari garrantzi gehiago ematen hasi ginen: kilo pare bat bota, hankak ohitu... Azken hiru hilabeteetan aizkora gehiago zentratu gara. Bi kirolen arteko trantsizioak ere landu ditugu, gorputza batetik bestera egokitzeak.

**Enborretan zenbat denbora ater nahiko zenuke, korri lasai egiteko?**

Ez dakit. Ez dakit berak korrika zenbat egin dezakeen, eta neronek ere ez dakit garbi. Dakidan bakarra da, aizkora ahal den lanik onena egitera joango naizela. Zulo bat ireki, eta gero ikusiko dugu nahikoa den edo ez.

**Beste errokarik ba al duzu buruan?**

Txikonen aurka jokatu nuenean, aizkora, korrika eta harria jasotzen, askatu ezinik ibili nintzen; hankak oso gaizki sentitu nituen. Apustua irabaziarren, barruan ar hori gelditu zitzaidan: bai aizkora eta baita korrika ere lan hobea egiteko gai nintzela ikusten nuen. Esan nezake, begiz jota nuen apustua hauxe bere dela, etziko da gustuko apustua.

## Inaxio Zelarain zendu da istripu baten ondorioz

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Inaxio Zelarain billabonatarra herenegun hil zen, autobusean zihoala ezbeharra izan ondoren. Zelarain hiru euskal preso politikoren senidea eta Etxerateko kidea zen. Senide, lagun eta herritarrek gaur emango diote azken agurra Inaxio Zelaraini, 19:00etan, Villabonako elizan.

**Istripua autobusean**

Herenegun goizean, emaztearekin batera, Villabonatik Tolosara joateko autobusa hartu zuen Inaxio Zelarainek. Autobusa bat-batean gelditu ostean, hainbat bidaiari lurrera erori ziren. Erortzean, Inaxio Zelarainek buruan kolpe larria hartu zuen. Ospitale-ara eramatea lortu zuten, baina bertan hil zen billabonatarra.

**Gutuna**

## Inaxio Zelarain, in memoriam

**Espetxeak apurtzea beste helbururik ez zuten gizon bat.**

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua osatzen dugun kide guztiok, preso eta iheslariaren senide, lagun eta preso ohiek gure samina agertu nahi dugu herenegun ezbeharrez zendu zen Inaxio Zelarain Oiarzabal gure kide, borrokakidearen heriotzaren aurrean. Lerro hauen bitartez une latz haueetan bere senide eta gertukoie, eta bereziki, euskal preso politikoak dituen Julen Zelarain (aita), Pello Zelarain (anaia) eta Oskar Zelarain (iloba) ondoan egon nahi dugu, bahituak dauden ziega ilunetan gure babesa jaso bezate, gaur billabonatarren buru eta gogoak, Huelvan, Alicanten eta Madrilen daude. Eta nola ez Emilirekin, Ramonekin, Bixikin eta senide guztiekin.

Urte luzeetan Inaxiok, euskal preso politikoen senide bezala, bere errealitatearen testigantza egiten duen zapia eta presoak Euskal Herriratzea adierazten zuen pina ia beti soinean eraman ditu (askotan agertu da publikoki euskal preso politikoa izatera politikoa dutela eta euren eskubideen jabe direla aldarrikatzen); duintasunez eta harrotasunez herri honen askatasunaren aldeko borrokaren lekukotza egin du, dispertsioaren urte ia guztietan senideak izan



ditu espetxean (Herrera de la Manchara autobusez joaten ezagutu dugu eta larunbat honetan bertan Alicanterazihoan bere anaia bisitatzea), erreprosiaren krudelkeria denak pairatu behar izan ditu bere azalean (semeak nola torturatu dizkioten ikusi du, semeak presoan eta iheslariaren aldeko lana egiteagatik, hots, lan politikoa eta publikoa egiteagatik, nola kartzelara eraman dituzten ikusi du, epaiketa luze baten ondoren, anaia espetxean ikusi du ihesaldi luze baten ondoren, iloba torturatua izan da bortizki...).

Noski Inaxiori ez zaio inolako aitortzarik zor, ez behintzat bostere publikoetatik. Inaxiok herri-tarrak izan ditu lagun eta haiek dira lekuko eta haiek esan bezate.

Beti tinko bere seme eta senideen aldeko borrokan. Hileko azken ostiralak ia inoiz ez dituk berdinak izango Inaxio. Guk hik erakutsitako indar eta adoreaiz blaiturik lanean jarraituko diagu, kaleak bete eta espetxeak hustu behar baitzitugu. Adiorik ez.

Muxuak Julen, Pello eta Oskarentzat ere.

■ Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Zaintzailea.** Pertsona euskalduna eta esperientziaduna behar da adinekoa zaintzeko Tolosan. Astelehenetik ostiralera 10:00-13:00, eta larunbatetan, 10:00-11:00. Interesatuak deitu 658 73 98 12 telefono zenbakira (14:00-16:00).

**■ Zaintzailea.**

Esperientziadun emakume euskalduna, asteburuetan eta astean zeharreko jai egunetan, pertsona edadetuak zaintzeko eskaintzen da, Tolosan. Interesatuak deitu ondorengo telefonoz zenbakira, 626 11 92 50ra.

**LANA**

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako gara-jea, txokoa, jardina eta trasteleku. Interesatuak deitu, 678 26 76 57 telefono zenbakira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 36ko gerran fusilatutako bost zizurkildarren memoria aldarrikatuko du udalak

Hernandorena taldeak gerra sufritu zuten omentzeko azarorako antolatu dituen ekitaldiekin bat egin du

**Iñigo Terradillos** Zizurkil

Zizurkilgo Udalak Espainiako gerran fusilatutako bost zizurkildarrei eta gerra sufritu zuten herritar guztiei errekonozimendua emango die. Iragan osteguneko egun egin zen ezohiko bilkuran Bildu koalizioak aurkezturiko testua onartu zen aho batez. Adierazpen horren bidez, fusilatuen eta gerra pairatu zutenen memoria aldarrikatzea dute helburu, eta Hernandorena kultur taldeak azaroko lehen asterako antolatu dituen oroimen ekitaldiekin bat egiteaz gain, herritar orori luzatzen diete bertan parte hartzeko gonbita.

## 75. urteurrena

Eva Usandizaga giza eskubideetarako zinegotziak (Bildu) irakurri zuen testuan 75 urte bete direla aurten «altxamendu frankista» gertatu zenetik gogoratzen dute. «Tropek Zizurkil hartu zuten; errepublikak zekarren demokraziaren eta haize berrien kontrako erasoak izan zen, eta urte asko iraun zuen iluntasuna ekarri zuen, bereziki gerrak eta garaileek kolpatutako familientzat, besteak beste zizurkildar fusilatuen senideentzat».

Hala, Zizurkilgo Udalak aitortza egiten die faxistek fusilatutako bost herritarrei: hala nola, Elias Konstantzio, Juan Almoriza, Gabino Barroso, Joxe Kruz Zuriarrain eta Juan Kruz Iribarreni. «Faxistek demokrazia defendatzeagatik hil zituzten» he-



Eva Usandizaga giza eskubideetarako zinegotziak Bildu proposaturiko testua irakurtzen, iragan osteguneko ezohiko Udalbatzan. HITZA

## ↓ Oroimen ekitaldiak

### EGITARAUA

#### ■ Azaroak 2, asteazkena.

19:30ean, Iriarte etxean, Oroituz taldea (Lau Haizetara Gogoan). *Egia, justizia eta erreparazioa*. 36ko altxamendu militarrek Beterriera ekarri zuen errepresioari begiratu emango diote; biktimen frankistek egia, justizia eta erreparazioarako duten premia azpimarratzea.

#### ■ Azaroak 3, osteguna.

19:30ean, Atxulondo kultur

rritar guztien memoria aldarrikatuko du Udalak, «ez ahaztea berriro ez gertatzeko bermea delako».

#### Ekitaldi sorta

Teodoro Hernandorena kultur taldeak azaroko lehen asterako oroimen eta omenaldi kutsua duten hainbat ekitaldi antolatu ditu. Lehena datorren asteazkenean izango da, azaroaren 2an.

etxean, Francisco Etxeberria Gabilondok (EHUko irakaslea eta forensea) *Exhumando fosas... recuperando dignidades* (Hilobiak arakatu... duintasunak berreskuratu) hitzaldia emango du.

#### ■ Azaroak 6, igandea.

12:00etan, kanposantuan, Espainiako gerran fusilatutako eta frankismoaren errepresaliak jasane behar izan zituzten herritarren omenezko ekitaldia eta hilarriaren aurkezpena.

Andoaingo Oroituz taldea gonbidatu dute egiaz, justiziaz eta erreparazioaz hitz egitera. Hurrengo egunean, azaroaren 3an Francisco Etxeberria ariko da oroimen historikoaz.

Hitzaldien ondoren, azaroaren 6an ekitaldia izango da hilerrian. Hain zuzen, 36ko gerran fusilatutako eta gerra sufritu zuten herritarrek emenduko dituzte.

# Urrifest gaua antolatu du Gaztetxeak, biharko

Euskal Herriko hainbat garagardo dastatzeko aukera izango da; afaria egingo dute, eta musika ere izango da

**I. Terradillos** Anoeta

Euskal Herrian eginiko hainbat garagardo mota dastatzeko aukera izango da bihar, Anoetako Gaztetxean. Izan ere, Anoetako Gazte Asanbladak estreinako Urrifest gaua antolatu du, garagardoa oinarri duen festa.

Arratsaldean, zazpiak aldera emango diote hasiera festari, Anoetako Gaztetxean. 21:00etan, mahaiaren bueltan eseriko dira denak, alemaniar erako afariak gozatzeko. Afaria amaituta ere, garagardo bereziak dastatzen jarraitzeko parada izango dute. Eta, hori guztia, musikaz giroturik, Besteikepe eta Itzel taldeek zuzeneko emanaldia eskainiko baitute.

Anoetako Gaztetxeak festa honetan parte hartzeko deia luzatzen die herritar orori. Hori bai, gerturatu nahi dutenei, pitxerra etxetik eramatea eskatzen diete.

## → Laburrak

### Mintzolak ahozko ondarea biltzeko asmoa azaldu du

**AMASA-VILLABONA** ▶ Ikus-entzunezko Ondarearen Munduko Eguna ospatu zen atzo mundu osoan, UNESCOk izendatuta. Ospakizun hori aprobetxatuz, Mintzola Fundazioak proiektu berri baten aurkezpena egin zuen: Euskal Herriko Ahozko Corpusaren Diagnostika. Egitasmo honen bidez, Euskal Herrian ahozko ondarea jasotzeko egin diren grabazio guztien katalogazioa egin nahi da, 2012ko udaberrian argitara emateko.

### Informazio batzarra udako kontratazioen inguruan

**LEITZA** ▶ Leitzaldeko Bilgune Feministak eta Sarriopapel enpresako LAB sindikatuak informazio batzarra deitu du gaurko. Aurreran izango da, 19:00etan hasita, eta udan lan-tegiko emakumeek izan zituzten kontratazioen inguruan hitz egingo dute. Herritar orori irekia izango da.

### Belardoren bisita izango dute gaur Uzturpen

**IBARRA** ▶ IV. Ibarra Galtzakomik Komiki Lehiaketaren harira, Uzturpe Ikastolako euskarazko komikigintzako pertsonaia ezagun baten bisita izango du gaur. 9 urteko ikasleek *Berria* egunkariko *Mantangorri* gehigarrian azaltzen den Belardo pertsonaia bitxia gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Belardori esker baratza zertan den ezagutu ahal izango dute komikiarren bitartez; zizareak, azelgak, porru eta porrusaldak ez dira falta izango. Iñaki Martiarena, *Mattin* komikigile eta Galtzakomik lehiaketako epaimahaikidea komikia marrazten ariko da.

### Talo afaria eta zine mutua izango dituzte gaur

**OREXA** ▶ Kultur hamabostaldien barruan, talo afaria egingo dute gaur, 19:00etan hasita. Ondoren, zine mutua izango dute ikusgai bertaratzen direnek. Bihar, berriz, gaztetxoek puzgarriak eta txokolata izango dute arratsaldean, eta gauean, antzerkiak gozatzeko aukera izango da, *Ogiyik karri etzun semia*, hain zuzen ere.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95





GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibaralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**ZINEMA**

- **Tolosa.** *Arriety y el mundo de los diminutos* Topic-en igandean, 17:00etan eta 19:00etan.
- **Villabona.** *La cara oculta* Gu-rean bihar, 19:30ean eta 22:15ean; igandean 19:30ean; eta astelehenean, ikuslearen eguna, 21:30ean.
- **Leitza.** *El hombre de al lado* gaur, 22:30ean eta igandean, 19:30ean.

**MUSIKA**

- **Tolosa.** Gaur Bonberenean, 22:30ean, Napoka Iria. Bihar berri, Bonberenea Txarangak kalejira egingo du *Pirritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea Txaranga* lana aurkezteko. 11:30ean irtengo dira. Igandean, Italiako Stearica taldea ariko da 22:30etik aurrera.

**AZOKAK**

- **Tolosa.** Tolosa Goxua bihar, 08:30etik aurrera Trianguloan.
- **Bedaio.** Azoka Berezia igande goizean frontoian.

**JAIK**

- **Olarrain.** Tolosako auzoko jaien barruan gaur, 22:00etan Mus Txapelketa irekia; bihar, 21:00etan afaria eta ondoren trikita, eta 02:00etan baratxuri zopa; eta igandean, 10:00etan Mendi Bizikletako Herri Zeharkaldia, 12:00etan salda beroa eta haurren jolasak, eta 14:30ean bazkaria trikitalari eta bertsolariekin.

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Jatorrin elkarteak antolatuta Immigrazioa *Euskadin: elkarbizitza eta kultur aniztasuna* hitzaldia gaur, 18:00etan kultur etxeko areto nagusian.
- **Orexa.** Kultur hamabostaldien barruan gaur, 19:00etan talo afaria. Bihar, 16:00etan puzgarriak eta txokolate jatea, eta 22:30ean *Ogiyik ekarri etzun semia* antzezlan. Igandean 09:00etan Uitz-Orexa ibilaldia, eta ondoren bazkaria.
- **Alkiza.** Amañili Alkizako emakume taldeak antolatuta bihar, *Educar para la libertad* hitzaldia 15:00etatik 16:00etara, eta *Fracaso escolar* tailerra 17:00etatik 20:00etara.

**Agurrak**



**Urte askoz Jone! Matte zattu!**

**Urte askoz Jone!**

Elkarrengandik bereizten gaituzten paretak txikitu eta senti gaitezen zure ondoan, gertu. Maite zaitugu!



**Urte askoan Iñigo!**

**Urte askoan!**

Iñigo Guridi Lasa (Villabona). Besarkadarik handienak! Eutsi gogor! Maite zaituztegu!



**Zorionak Iñigo!**

Eguzkia atera dela maiz, lañoak ere badaudela, etorkizuna geurea dela, familiaro denak zurekin gaudela, denon besarkada bat jaso dezazula, ta gure zorionak hartu ditzazula.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

**BIHAR**

- **Tolosa.** Azpirzo, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

**ETZI**

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

**ETZIDAMU**

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irtzien erantzukizunik.

**Programazioa**

**28 KANALA**

- **08:30.** Berbaz. ■ **09:00.** Foorfur. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00.** Kafe t'erdi. ■ **10:30.** Gipuzkoa kultura. ■ **11:00.** Bizitegia. ■ **11:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **12:00.** Estetika. ■ **12:30.** BIT. ■ **13:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00.** Kafe t'erdi. ■ **14:30.** Gipuzkoa kultura. ■ **15:00.** Bizitegia. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Estetika. ■ **16:30.** BIT. ■ **17:00.** Foorfur. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** 28 Klip. ■ **18:30-19:30.** Tertulia. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Ikusmira.

**TXOLARRE IRRATIA (107,6)**

- **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia eta magazina. ■ **13:00.** Lehiaketa. ■ **13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ **16:00.** Pastadun. ■ **17:00.** Kabitik plaza. ■ **18:00-19:00.** Tolosaldeko Ahotza magazina eta albistegia. ■ **20:00.** Info 7ko albistegia.